

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Eliot Ness, ukitua eta hondoratua

CHICAGO, 1932. Al Capone ezaguna epaitu eta espetxeratu zuten. Hainbat bidetatik saiatu ziren Chicagoko mafiako burua atxilotzen, baina azkenean zerga-delitua leporatuta sartu ahal izan zuten kartzelan, helburua Caponeren legez kanpoko negozioak, alkohol trafikoa bereziki, geldiaraztea bazen ere. Herbert Hoover presidentearen administrazioak krimen antolatuaren aurkako brigada berezia sortu zuen, hamalau gizonez osatua eta, gerora, “ukiezinak” ezizenez ezaguna. Eliot Ness (1903-1957) buru zutela, Al Caponeren atzetik ibili ziren luzaroan.

Taldearen jardun heroikoaren xehetasunak literaturak eta zinemak kontatu dizkigute, Eliot Nessek berak argitaratutako liburuan oinarrituta, eta egiaztat jo izan dira luzaroan. Baina garai hartako lekuokoe beste bertsio bat dute.

Egia da Eliot Ness Chicagon jaio zela, eta bertako Unibertsitatean ikasketak amaitu ondoren, 1927an Altxor Publikoaren Departamenduan lanean hasi zela, Chicagoko Alkohol Debekua- ren Bulegoan hain zuzen. Handik aurrerakoetan, ordea, ez dirudi parekotasun handirik dagoenik Nessek zioenaren eta benetan gertatutakoaren artean.

Roland V. Libonati (1900-1991) AEBetako Kongresuko eta Alderdi Demokratiko kide eta kargudun izan zen luzaroan, baina 20ko hamarkadan Chicagoko Unibertsitateko ikasle zen, Ness bezalaxe. 1924an abokatu lanetan hasi zen eta gertutik jarraitu zuen Al



Goian, Eliot Ness, ustez Al Capone atxilotu zuen agentea. Azpian, Brian de Palmaren *The Untouchables* (1987) filmaren afixa.

Caponeren aurkako prozesua. Eliot Ness bera ere ezagutu zuen. 1987an, Brian de Palmaren *The Untouchables* filma ikusi eta, haserre bizian, sekulako esan zituen ustezko heroia- ren aurka: “Eliot Ness iruzurti hutsa zen. Norbait atxilotzekotan, etxeko sukaldean alkohol apur bat destilatzen aritzen ziren horietakoren bat atxilotu- ko zuen, eta ezta hori ere; bulegoko funtzionarioa baino ez zen eta ez zuen inolako zerikusirik izan Al Caponeren atxilotetekin”.

Libonatiaren esanetan, “Neskek egin zuen gauza bakarra, afera guztia amaitu eta urte askotara, lege lehorra ia ahaztua zegoen- ean, liburu bat idaztea izan zen, autobiografia itxurako fikziozko nobela”. Eliot Ness artxibozain lanetan ibili zen bulegoan eta eskura zituen fikzio hutsezko istorio horri sinesgarritasuna eransteko behar zituen benetako

datuak. Horiek bildu eta bera eta “ukiezin” mitikoak protagonistatzat zituen istorioa eraiki zuen.

1935ean, Lege Lehorra amaituta, Ness Clevelandera joan zen, bertako Segurtasun Publikoko Zuzendaritzan lan egitera. Baina 1942an dimisioa eskatu behar izan zuen, alkoholaren eragin- pean auto istripua izan zuelako. 1944an Washingtingo Diebold Corporation enpresan hasi zen lanean, baina 1947an, Al Capone sifiliak jota hil zen urte berean, ezagutzen ez diren arrazoiak medio, lanetik bota zuten. *The Untouchables* liburua hil baino hilabete batzuk lehenago argitaratu zuen, 1957an.

Arrastoak

Pio XII.a eta nazismoa

EUGENIO PACELLI, Pio XII.a Aita Santuak holokaustoare- kiko izan zuen jarrera ezta- baidagai izan da luzaroan, eta pil-pilean da berriz; batetik, Pacelli santu izendatzeko pro- zesua abian delako eta, bestetik, Benedikto XVI.ak duela gutxi Israelera egin beharreko bidaia atzeratu zuelako, ustez, bertan Pio XII.aren aurkako testua duen oroitarria dagoe- lako. Testuaren arabera, Pio XII.ak ez zuen ezer egin juduak Auschwitzera depor- tatu zituztenean.

Pacelliren aurkakoek diote ez zuela nazismoa eta nazien politika antisemitikoa behar bezala kondenatu. Eta Muni- chen eta Berlinen nuntzio izan zenean nazismoaren aldeko jarrerak hartu zituela dioenik ere bada.

Benedikto XVI.ak kritika horiei aurre egin nahi izan die, Pacelliren isileko jardun- nak judu asko salbatu zituela esanez. Gainera, Pacellik juduen alde egindako lana Israelgo lehen ministro Golda Meir-ek goraiatu zuela gogorarazi du.



Pio XII.ak ez omen zuen behar bezala kondenatu nazismoa.